# Hari ikusezina

Gu guztiok lotzen gaituzten loturei buruzko ipuina

**MÍRIAM TIRADO**

Ilustrazioak: Marta Moreno



# Hari ikusezina

Obra honen edozein erreprodukzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu.
Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.conlicencia.com; 91 702 19 70 / 93 272 04 47).

*Liburu honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren diru-laguntza jaso du.*

*1. argitalpena: 2022ko urtarrilean.*

Jatorrizko izenburua:
*El fil invisible*
Azala eta liburuaren diseinua:
Marta Moreno
Maketazioa:
Erein argitaletxea
Ilustrazioak:
Marta Moreno
Itzulpena: Aintzane Atela, Rosetta T. Z.

© Testuarena: 2020, Míriam Tirado
© Ilustrazioena: 2020, Marta Moreno
© 2020, Penguin Random House Grupo Editorial
Travessera de Gràcia, 47-49. 08021 Barcelona
© Argitalpen honena: 2022, Erein argitaletxea. 20018 Donostia

ISBN: 978-84-9109-768-6
L.G.: D 1292-2021

EREIN Argitaletxea
Tolosa Etorbidea 107
20018 Donostia
T 943 218 300
erein@erein.eus
www.erein.eus

Inprimatzailea: Gertu inprimategia
Zubillaga industrialdea, 9
20569 Oñati, Gipuzkoa
T 943 783 309
gertugrafika@gmail.com
www.gertu.net

# Hari ikusezina

Gu guztiok lotzen gaituzten loturei buruzko ipuina

**MÍRIAM TIRADO**

**Ilustrazioak: Marta Moreno**

Itzulpena: Aintzane Atela

erein

*Amona Carme-ri eta lotzen gaituen hari ikusezinari*



Nura bainatzen ari zen. Izugarri gustatzen zitzaion bainuontzian sartu eta orduak ematea uretan, harik eta azala zimurtzen zitzaion arte.

Bazituzten ama-alabek hainbat ohitura behin eta berriro errepikatzen zituztenak; adibidez, amak Nurari gorputza xaboiz igurzten zion bitartean, honela esaten zion: «Ondo-ondo garbituko ditugu hankak, korrika eta jauzi bizkor egiteko. Eta baita oin eder hauek ere, oso urrun iristeko. Eta besoak eta eskuak berdin, gauza asko hartu eta jasotzeko…».



Egun hartan, ama sabelaldera iritsi zenean Nurak galdetu zion:

—Ama, zertarako da zilborra? Badakit zure sabelean nengoenean zure zilborretik irteten zela handitzen lagundu zidan zilbor-hestea. Baina, orain…, zertarako dut zilborra?

—O, Nura…, ez dakizu zenbat pozten nauen galdera horrek! Aspalditik nengoen zuk hori noiz galdetuko zain…





Nura amari begira gelditu zen, begiak zabal-zabalik, tutik ere ulertu gabe.

—Zilborrean dugu gordeta sekreturik ederren eta kuttunena.

—Bai? —esan zuen Nurak—. Zer sekretu da ba hori?

—Hari ikusezinaren sekretua.

